

Metodo zientifikoak

rail oro, ohi den bezala, gertaera meteorologiko garrantzitsuak izaten dira.

Azken 30 urteotako irailetan Hego poloan gertatzen den ozono geruzaren ahultzea kezka iturri bilakatu zaigu. Aurten ahultzea gertatu bada ere, ohikoa baino txikiagoa izan da zorionez. Ezin ahaztu ere irailtan Artikoaan gertatzen dena. Irail erdiaren inguruan Artikoko izozte maila urteko mailariki beherenean aurkitzen da eta, urtez urte, maila hori hain joan da beherantz non gero eta gehiago diren, hogeitaz barru Artikoko izotza urtuko dela esaten dutenak. Aurten mendeko zortzigarren urte txarrena izan da izotz mailari dagokionez, beraz, azken urteotako joera apurtu eta datu on samarraren aurrean gaudela esan genezake.

Aipatu ditugun bi kasuokin Donald Trump presidenteak aitzakia izango luke kanpainan esandakoa berresteko, alegia munduan ez dagoela arazo ekologiko seriorik. Baina beste gertaera batzuk ere izan dira eta horiek ez dira Trumpen aldekoak izan, Kariben inoizko urakanik bortitzenak izan baitira eta azkenaldi honetan Kaliforniako suteek urakanek baino heriotza-kopuru eta kalte handiagoak eragin baitituzte.

Aurtengo gertaera hutsekin ezin dugu ondorio orokorrik atera, bai ordea azken hogeitaz edo hogeitaz hamar urteetako datuak aztertzen baditugu. Hortaz, ozono zuloarena txarrerera ez doala ikus dezakegun bezala, Artikokoa salbuespentzat hartu behar dugu aurtengoan,



Joxerra Aizpurua
INDUSTRIA INGENIARIA

Metodo zientifikoaren bidezko datuen analisiek ez dute inoiz %100eko ziurtasuna islatuko, beraz gertaeren analisisian zientzialariek patxadaz egin badezakete lan ahalik eta emaitzarik errealistenak lortzeko, gizarteak hipotesirik txarrena ekiditeko ahalegina egin behar du

tako datuak aztertzen baditugu. Hortaz, ozono zuloarena txarrerera ez doala ikus dezakegun bezala, Artikokoa salbuespentzat hartu behar dugu aurtengoan,

datuen historikoez beste ezer adierazten ez duten bitartean.

Joerak behin-betikotzat hartzeko zenbateko luzerako serieak behar ote ditugun batek baino gehiagok egingo du galde. Azken ehun edo berrehun urteotako datuak bilduta izango bagenu, agian ozonoaren balioak eta Artikoko azken datuak anekdota hutsa izango liriteke, eta hortaz Trumpenak zilegitasun handiagoa izango luke. Gertaera bakoitzak dituen berezitasunen araberrakoa izan behar du datu segida esanguratsuak, astronomia mailako gertaeren aldakortasuna susmatzeko milaka urtetako datuak behar izango ditugun bezala, ibai baten poluzioa detektatzeko egun bat nahikoa izango baita.

Metodo zientifikoaren bidezko datuen analisiek ez dute inoiz %100eko ziurtasuna islatuko, beraz, gertaeren analisisian zientzialariek patxadaz egin badezakete lan ahalik eta emaitzarik errealistenak lortzeko, gizarteak hipotesirik txarrena ekiditeko ahalegina egin behar du hasieratik, nahiz eta askotan hori ez bete; giza sena historian mamitutako jakinduria den neurrian, kasu egin behar diogula uste dut, hau da, bihotzak agintzen duenari kasu egin behar diogu, batez ere buruak informazioa prozesatzen denbora luzeegia behar izaten duenean. ■

 ARGIA

943 371 545
publiz@argla.eus
www.argla.eus/tarifak

Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.

Jarri publizitatea hemen